



Leire Reina - Irati Tobalina - Maitane Espina
Aixerrota BHI, 14-15

Aurkibidea

Irati Jimenez	3
Sarrera	3
<i>Atsekabe zaitut</i>	
• Kokapena	4
• Gaia	4
• Argumentua	4
• Istorioa	5
• Pertsonaiak	6
• Egituraketa	7
• Baliabideak	7
Iritzia	8
Bibliografia eta webgrafia	10

Irati Jimenez

Irati Jimenez Uriarte (Mundaka, Bizkaia, 1977) euskal idazlea da. Horrez gain, Euskal Telebistan edota Euskadi Irratian kazetari aritu da. Edorta Jimenez idazlearen alaba da. Kultura eta gizarte gaiak jorratzen zituen *Nabarra* **aldizkariaren** azken zuzendaria izan zen, baina gaur egun, Consumer Eroski aldizkari eta webgunearen euskara edukien arduraduna izateaz gain, enpresei internetarako aholkularitza eta zerbitzuak ematen lan egiten du.



2006an, Augustin Zubikarai nobela laburren saria irabazi zuen *Bat, bi, Manchester* eleberriarekin. Urtebete geroago akzesita lortu zuen Igartza Sarian bere bigarren eleberriarekin, Nora ez dakizun hori eta liburu horrekin gainera, 2010ean, irakurleek ematen duten Beterriko Liburua Saria eskuratu zuen. Baina idazle euskaldunak beste hainbat liburu idatzi ditu, besteak beste:

- *Malcom X: Duintasunaren kolorea*
- *Atsekabe zaitut*, Bizkaiko Liburu-saltzaileen "Farolillos de papel" saria.
- *Laranja azalaren negarra*, Donostia Hiria saria.
- *11 urte orgasmorik gabe. Mulder, Scully eta errepresioaren arketipo erromantikoak telebistan.*
- *Aiztoa eta arkatza Idazleek idazteari buruzko emandako aholkuak, auto-laguntza gida bat*

Sarrera

Atsekabe zaitut, 2010eko fantasiako eleberri bat da, aldi berean, errealista dena. Bilbon kokatzen da, eta protagonistatzat, katu-gizaki diren izaki misteriotsuak ditu, hiriko kaleetan zehar, atsekabea barreiatzen dutenak. Pertsonaia nagusiak bi katu dira: Eme eta Hamar. Euren arteko harremana oso estua da, anai-arreba bezalakoak dira, eta oso maite dute elkar.

Alegiazko mundu guzti horren atzean, istorio erreal bat ezkututzen da: Emek, protagonistak, bere burua lekuz kanpo ikusten du, eta aldaketen beharra sumatzen du bere bizitzan. Azken batean, aldaketa horiekiko beldurraz eta aldaketa horien ondorioez aritu da Irati Jimenezek liburu honetan.

Atsekabe zaitut

- **Kokapena**

Atsekabe zaitut Bilbon kokatzen den istorioa dela esan daiteke. Baina ez gaur egun, gizakiok ezagutzen duten Bilbon; katuen bizileku den Bilbon baizik. Hiri ezkutu honetan, milaka katu daude, eta bakoitza bere erara jokutzen du, baina, guztiek helburu berdina bete behar dute: esleitutako pertsonaren barnean atsekabearen hazia ereitea.

Denborari dagokionez, istorioa ez da garai jakin batean kokatzen, baina esan daiteke orainaldian gertatzen dela, zenbait xehetasun direla eta: gaztetxo batek *Converse* zapatilak eramaten ditu, gaur egun modan daudenak; eta gazte berdinak, sms-ak bidaltzen ditu, beraz, azken urteetan kokatuta dago eleberri hau.

- **Gaia**

Atsekabe zaitut: fantasiako istorio baten atzetik ezkututzen den mundu erreal eta krudela.

- **Argumentua**

Eme eta Hamar, *Katu Kaleko* bizitzaren parte diren bi katu dira, eta horrenbestez, atsekabea izakien barnean ereitea da haien lana. Hainbat urte pasatu dira Eme eta Hamar unibertsitatetik atera zirenetik, baita lagunak eta lankideak direnetik ere; baina, Emeren pentsamendua urteekin aldatuz joan egin da: atsekabea munduan zehar sakabanatzeaz nekatu, eta bere bizitzan aldaketak egiteko garaia heldu dela konturatu da. Baina, *Katu Kalen*, inork ezin du bere kargua utzi. Beraz, zer ekarriko ote dio etorkizunak Emeri?

● Istorioa

Eme eta Hamarrek elkar ezagutu zuten unibertsitatean. Hasieran, Emek kainkailu eta koitadutzat hartu zuen Hamar, baina horrela pentsatzeari utzi zion mutilak bere bizitza arriskuan jarri zuenetik bera salbatzeko. Harrezkero, lagun-minak egin eta banaezinak bihurtu ziren.

Unibertsitatean, atsekabea barreia zezaten hezi zituzten bi katu-gizakiak eta graduatu bezain azkar, lankide bilakatu ziren. Garai hartan, Hamar neskatan erraz egiten zuen. Gaztea zen eta Eme konkistatzen saiatu zen, baina alferrik: Emek bere sexu bereko izakiak zituen gustuko.

Katu emea Ginebra Erreginaren etxean bizi zen. Penak alkoholean itotzeko asmoz, emakumeak ginebra gehiegi edan ohi zuen, Emek eta Hamarrek bezalaxe. Ia-ia gauero, gizakiak lotan zeudenean, etxetik irten, eta taberna batean elkartzen ziren zeharo mozkortzeko helburuarekin, ofizioak behartuta, egiten zutena ahazteko asmoz. Tamalez, hurrengo goizak, garratzak izan ohi ziren, ajez eta buruko minez josiak.

Hamarrek neskaz-neska ibiltzea zuen gustuko, baina Emek aldiz, bakarra zuen buruan: Katu Kale Andereñoa. Haren etxera jo ohi zuen maitasun, sexu eta plazer bila, bere lanetik apur bat aldentzen zuen zerbait aurkitzeko asmoz.

Baina, hainbat urte lan eta lan egon ondoren, egun batean Eme bere bizitzaren hustasunaz jabetu, eta aldaketak egiteko beharra sumatu zuen. Egoera larrizearren, laneko inspektoreak mendebaldean lanpostu baten berri eman zion eta Emek, egunak eta egunak eman zituen lur jota. Atsekabea Bilboko kaleetan zehar barreiatzea ez zen bere nahia, jadanik: bere kargua utzi nahi zuen. Baina ofizio krudel horretan, ezinezkoa zen dimititzea.

Neskak irtenbide bat aurkitu behar zuen eta Hamarri azaldu zion bere arazoa. Hark ezin zuela dena bertan behera utzi esan eta amore ez emateko erregutu zion; baina bera konkistatzeko ekinaldia bezala, alferrik izan zen. Hamar, egoeraren larritasunaz oharturik, sufrimendu jasanezinarekin akabatzeko egin zezakeen gauza bakarra egin zuen: Eme hil.

● Pertsonaiak

Eleberri honek, bi pertsonai nagusi ditu, baina istorioan zehar, bigarren mailako beste pertsonai batzuk agertzen dira ere. Emek, eleberri honen protagonistak, ez ditu agertzen diren beste pertsonaien izen errealak aipatzen, eta ezizenen bidez aurkezten zaizkio irakurleari.

Eme. Nobela honen protagonista da. Erdi-emakume, erdi-katua da, ausarta, baina aldi berean, koldarra. Iraganean, egokia ez zen emakumeaz maitemindu eta bihotz apurtu batekin bukatu zuen. Zorionez, *Katu Kaleko Andereñoa* ezagutu du, bihotz urratua sendatuko dion maitalea. Bere bizitzan, Hamarrek berebiziko garrantzia du, bere kabuz nahiko ondo moldatzen bada ere. *Katu Kalen*, garrantzizko lanpostua du: atsekabea esleitzen zaion gizakiaren barnean ereitea. Baina istorioan zehar, ofizioa arazo bat bihurtuko da Emerentzat.

Hamar. Emeren lagun mina da, erdi-gizon, erdi-katu dena. Eme fakultatean ezagutu eta geroztik, lanean ibili dira elkarrekin *Katu Kalen*. Hasiera batean, Emek, mutila kainkailu eta koitadu bat zela uste zuen, baina horrela pentsatzeari utzi zion mutilak bere bizitza arriskuan jarri zuenetik bera salbatzeko. Neskaz-neska ibiltzea du gustuko, baina Eme konkistatzen saiatu bada ere, alferrik izan da. Emek anaitzat jotzen du, eta bera da, ia gauero, tabernara laguntzen diona.

Ginebraren erregina. Emakume bakartia da. Bere senarrak utzi egin zuen, eta harrezkero bakarrik bizi da bere etxean. Bihozmina dela eta, egunero ginebra botila baten atzetik ibiltzen da, bere bizitzan aldaketak gertatzeko itxaropenaz. Eme egunero joan ohi da bere etxera, katu itxurarekin, janari bila; eta esan daiteke, Emeren bisitak direla bere bizitzaren erregulartasuna markatzen dutenak.

Katu Kale Andereñoa. Emeren beharrak asetzen dituen emakumea da. Eme eta Hamarren sekretua dakien pertsona bakarra da. Hori dela eta, Emek hurbiltasun edo kidesan berezia dauka berarekin. Eme, bere lana amaitzean, bere txirrina jo eta etxera igotzen da, laztan goxoen bila. Hasiera batean, bien arteko harremanak puntualak dira; baina istorioa aurrera doan heinean, bien arteko harremanak sendotasuna irabazten du, eta amaieran, maiteminduta daudela ondoriozta daiteke.

● Egituraketa

Liburu honek barruan daraman istorioa kontatzeko, egitura lineal batez baliatu da, idazlea, gehienetan. Aipagarria da erabilitako *flashback* teknika, hau da, bat-batean, iraganera salto egiteko teknika, baina dena den, estilo lineala da nagusi. Aipatutako *flashback* hori, Eme eta Hamarren laguntasuna non, noiz eta nola sortu zen azaltzeko erabiltzen du autoreak.

Istoria ez dago zatitan banandurik eta liburuak ez dauka kapitulurik. Hala ere, idazleak pasarte edo une desberdinak bereizteko, hutsuneak eta irudiak erabili ditu, eta ez hori bakarrik, lerrokadaren hasierako lehenengo hitza letra larriz idatzi du ere.

Iratz Inziartek egindako irudiak aipatzekoak dira. Istorioaren konplexutasun maila handia bada ere, margolari honek aparteko lana egin du, eleberritari forma emanaz. Irakurlearentzat zaia egiten da horrelako mundu bat imajinatzea, eta irudiei esker, protagonisten itxurak, ekintzak eta ingurunea irudikatzea errazago egiten da.

● Baliabideak

Liburu hau narrazio bat da, prosazko lan bat. Pertsonaiei dagokienez, ez da haien deskribapen zehatzik egiten, jakin daitekeen bakarra erdi katu erdi pertsonak direla eta elkarrekin lan egiten dutela da. Istoria narratzaile orojakile batek kontatzen du. Honek, pertsonaien sentimenduak eta ekintzak azaltzen ditu.

“Mundua bere kontra, ukitzen duenak azala urratzen dio, hemezortzi hilabete putzuan, zuena galduta, ez zuena urrun eta behar duena falta: sentsazio hori, azkenean hala edo nola okerrak zuzendu eta haizeak aldatuko direla dioen sentsazio hori”.

Jimenezek pertsonaien arteko elkarrizketak txertatu ditu ere, eta euskara batua izan da, istorioa kontatzeko erabilitako hizkuntza; beraz, irakurtzea erreza egiten dela esan daiteke. Horrekin batera gehitu behar da, hiztegiaren aldetik ez dagoela zailtasunik berezirik, hiztegi simple bat erabiltzen baita.

Estiloari dagokionez, ez dago figura literario nabarmenik, baina pertsonaien gogoeta eta hausnarketak oso nabarmenak dira eleberrian zehar. Istorioan, bi pertsonaia nagusien sentimenduak zehaztasun osoz deskribatzen dira; eta horrek, nobelarekiko hurbiltasuna ematen dio irakurleari.

“Ez al zara konturatzen lana gorroto dudala, txo? Ez al duzu ikusten ezin dudala jasan, itotzen ari naizela, zoratzen? Gezurra baino ez dizut esaten eta zertarako gara lagunak, kristo maitea, gezurren oskola apurtzen ez badakizu?”

Iritzia

Fantasiatzko munduaz baliatu da Irati Jimenez *Atsekabe zaitut* eleberrian mundu erreala hitz egiteko. Bizitzan zehar, pertsonak aldatuz doaz, urteak eta bizipenak ez baitira alferrik igarotzen. Idazleak aldaketa horiek islatu nahi izan ditu nobelan, baita horiek inguruekiko harremanetan daukaten eragin zuzena ere. Horretarako, Eme protagonistaren kasua aurkezten du: barnean sentitzen duen aldatu beharrak lagun-mina galtzera eramango baitu.

Atsekabe zaitut nobela berezia da, benetan. Betiko istorio arrunt eta sinpleetatik urrundu da idazlea, munduan zehar, atsekabea barreiatzea helburutzat duten katu-gizaki batzuen istorioa kontatuz. Narrazioa gogorra eta latza egin daiteke, errealitate krudel eta bidegabezko bat aurkezten duelako. Dena den, tristeia eta iluna bada ere, Jimenez-en liburua oso erakargarria da, eta horren argibide da hurrengo esaldia:

"Poza tximista baino ez da... Dardara. Iraunarazi nahi bada, argazkiekin momifikatu behar da. Pozak ezin du iraun, badakizu".

Istorioan zehar, ez dago poztasun ezta zoriontasunerako lekuri eta horrek, nahiko malenkoniatsua bihurtzen du eleberria. Hala ere, idazleak, merezitako protagonismoa utzi die sexua eta plazerrari, liburuko orriak alaituz. Horren froga garbia da hurrengo pasartea:

“Batzuetan ahaztu egiten zaio zein guapa den. Edo beharbada ez du inoiz jakin. Marmelada mingainarekin hartu eta bihotza gelditzeko bezain astiro jaten dio ahoa. Ahoaren atzetik belarri ondoak, samako zirrikituak, titi puntak, sabeleko bihurgunea. Hanka artera iristen denean, kuleroak kendu gabe jaten dio alua, oihalaren gainetik haginka. Arnasestuka sentitzen duenean, bi atzamar bere negar sarkor, gazi, goxoan busti eta atzetik sartzen dizkio, tantaka ari den zuloan mingainari leku eginez. Beharbada ito egingo da, beharbada hil egingo da, baina ez zaio modu hoberik bururatzen”.

Istorioa alegiazko Bilbo batean kokatzen da, Bilbo hurbil baina ikusezin batean. Idazleak *Katu Kale* bezalako irudizko lekuak deskribatzen ditu, baina beste leku erreal

eta ezagun asko ere. Esate baterako, Atxuri, Erribera, etab. Gaurkotasunak eta tokiarekiko hurbiltasunak erraz barneratzen dute irakurlea nobelan, hainbat leku edo egoerarekin identifika daitekeelako.

Idazlearen aurreko *Nora ez dakizun hori* nobelan antzera, *Atsekabe zaitut* izenburu indartsu eta bitxiak erakarri egiten du irakurlea, liburuak irakurtzera bultzatuz. Eleberria euskara batu eta garbi batean idatzita dago. Horrek eta erabilitako hiztegi arruntak, ez du irakurtzerako orduan, ulertzeko arazorik suposatzen eta oso aproposa bihurtzen du euskaldun berrientzat. Gainera, Irantz Inziartek, irudigileak, egindako lana ez da makala izan, eta marrazki bikain eta esanguratsuz bete ditu liburuaren orriak, nobelaren irakurketa erraztuz.

Liburuak ez dauka egitura zehatzik ezta kapitulurik ere. Gainera, orrietan zehar, ez zaio mentzio handirik egiten denborari eta pasarte batetik bestera zenbat ordu edo egun igaro diren jakitea ezinezkoa da. Horrek nobela antolatzeke eta ulertzeko orduan, zailtasunak suposa ditzake. Dena den, denbora ez da eleberri honen nahitaezko osagaia eta Jimenezek ez du haren beharrik izan hautatutako mezua transmititzeko.

Nobela honek benetako errealitate krudela erakusten digu. Ez du paregabeko amaiera duen betiko istorioa kontatzen, amaiera mingots bat duena baizik. Baina horrek, ez du eleberri bikaina izatea eragozten, alderantziz, apartekoa bihurtzen du.

Eleberri honen atal guztiak aztertu ondoren, liburu bikaina eta bitxia dela ondoriozta daiteke, irakurtzea merezi duen horietakoa. Irati Jimenezek bete-betean asmatu du oraingoan ere, eta horrela jarrai dezala opa diogu.

Bibliografia

Atsekabe zaitut, Irati Jimenez, Txalaparta.

Webgrafia

http://eu.wikipedia.org/wiki/Irati_Jimenez

<http://kritikak.armiarma.com/?p=5013>

<http://www.txalaparta.eus/libro/4095/atsekabe-zaitut/>

<http://www.casadellibro.com/libro-atsekabe-zaitut/9788481365894/1800461>

<http://www.eitb.eus/es/videos/detalle/558266/la-escritora-irati-jimenez-presenta-su-libro-atsekabe-zaitut/>